

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Hutsen zuzenketa, ALHAOren 27 zenbakian, 2022ko martxoaren 4an, argitaratutako 517 iragar-kian: 112/2022 Foru Agindua, martxoaren 1ekoa, aldatzen duena Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren ekainaren 1eko 318/2009 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita balore, aseguru eta errentei buruzko urteko informazio aitortuaren 189 eredia, bai eta haren baruko orrien ordeztuaren bidez zuzenean irakurtzeko moduko euskarriak erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere, eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren irailaren 27ko 529/2017 Foru Agindua, 289 eredia onesten duena finantza kontuen urteko informazio aitortuaren elkarrekiko laguntzaren esparruan

Iragarkia argitaratzean zenbait huts antzeman direnez, berriro argitaratuko da aipatutako foru aginduaren lehenengo artikulua Hiru apartatua, testu honekin:

Hiru. Eremu berri bat gehitzen da "BALOREEN NOMINAL UNITARIOA"; 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 146-163 posizioak dituen, II. eranskinean ageri diren 189 ereduko diseinu fisiko eta logikoetan. Honela geratzen da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
146-163	Zenbakizkoa	BALOREEN NOMINAL UNITARIOA "A" gakoa "BALORE GAKOA" eremuan jartzen denean (2 motako erregistroko 81. posizioa, aitortuaren erregistroa), aitortuari dagokion akzioen edo partaidetzen nominal unitarioa jasoko da merkatu antolatuetan negoziatutako erakunde juridikoen kapital sozialean edo funts propioetan. Eremu hau bi eremutan banatzen da: 146-159 Erakundearen nominal unitarioaren zenbatekoaren zati osoa. 160-163 Erakundearen nominal unitarioaren zenbatekoaren zati hamartarra.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 8a

Zuzeneko Zergen Zerbitzuaren burua  
MARÍA JESÚS PALACIOS ESPIGA